BESTELAKO XEDAPENAK

ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA

1263

EBAZPENA, 2012ko otsailaren 6koa, Garraio Azpiegituraren zuzendariarena, zeinen bidez aditzera ematen baita Amorebieta-Bermeo adarreko 2/600 kilometro-puntuko ezpondari eusteko eta plataforma sendotzeko proiektuaren eraginpeko ondasun eta eskubideen zerrenda.

Garraio Azpiegituraren zuzendariaren 2012ko otsailaren 1eko Ebazpenaren bidez, Amorebieta-Bermeo adarreko 2/600 kilometro-puntuko ezpondari eusteko eta plataforma sendotzeko proiektua onartu zen.

Proiektuaren xedea trenbide-plataforma sendotzea da, ezpondari eutsiko dion harri-lubeta baten bidez, bai eta ingurua hobeto drainatzeko hainbat lan egitea ere.

Proiektuaren eraginpeko lurrak eskuratu, eta ondasunak eta eskubideak behar bezala kudeatu ahal izateko, proiektuan ondasun horiek guztiak identifikatzeko zerrenda zehatz bat eta partzela-planoak datoz.

Organo honek eskumena dauka Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumeneko trenbide-azpiegituretako obrak egin ahal izateko nahitaezko desjabetze-jardunbideko izapideak egiteko eta ebazpenak onartzeko, hala ezarrita baitago Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 24ko 607/2009 Dekretuaren (azaroaren 30eko 328/2010 Dekretuaren bidez aldatutakoaren) 15.h) artikuluan, maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuaren 10.1.e) artikuluari dagokionean (dekretu hori urtarrilaren 18ko 6/2011 Dekretuaren bidez bigarren aldiz aldatu zen).

Trenbide Sektorearen azaroaren 17ko 39/2003 Legearen 6.2 artikuluak dioenez, trenbide-linea berriak jartzeko edo lehendik daudenak handitu edo zabaltzeko proiektuak onartzen direnean, eta onespen horretan okupatu beharreko ondasunak zehaztuta badatoz, nahitaezko desjabetzeko eskakizunen eta jardunbidearen ondorioetarako, onespenak berekin dakar, proiektua bera eta horren gaineko aldaketak herri-onurakotzat edo gizarte-interesekotzat jotzea, eta proiektuarekin batera doan zerrendan jasotako ondasun eta eskubideak lehenbailehen okupatu beharrekotzat aitortzea.

Nolanahi ere, proiektua onartzeak inplizitoki berekin dakarren arren proiektuaren eraginpeko ondasunak eta eskubideak okupatu beharra, Nahitaezko Desjabetzari buruzko Legearen 17.2, 18. eta 19.2 artikuluetan ezarrita dago ondasun eta eskubide horien xehetasunak jasoko dituen zerrenda egin eta aditzera eman behar dela, alegazioak eta datuak aurkeztu ahal izateko, okerrak zuzentzeko eta interesdunak zeintzuk diren ondo zehazteko.

Beraz, aipatutako xedapenak, horiekin bat datozenak eta aplikatu beharreko gainerakoak ikusirik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Amorebieta-Bermeo adarreko 2/600 kilometro-puntuko ezpondari eusteko eta plataforma sendotzeko proiektuaren eraginpeko ondasun eta eskubideen zerrenda aditzera ematea, ebazpen hau azkena argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita hamabost (15) egun balioduneko epean alegazioak aurkez daitezen, okerrik baldin badago zuzentzeko, hala ezarrita baitago Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 19.2 artikuluan eta horrekin bat datozenetan. Alegazioak Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saileko Garraio Azpiegituraren Zuzendaritzan aurkeztu beharko dira (Donostia kalea 1, Vitoria-Gasteiz).

Aipatu epean, eraginpeko ondasunen eta eskubideen zerrenda Amorebieta-Etxanoko Udalaren iragarki-oholean egongo da, edonork ikusteko.

Guztiek horren berri izan dezaten jakinarazten da.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko otsailaren 6a.

Garraio Azpiegituraren zuzendaria,
JESÚS MARÍA BENAITO VILLAGARCÍA.

Amorebieta-Etxanoko udalerria.

Finka-zenbakia: 1.

Jabea: Antonio Echebarria Zorrozaren oinordekoak.

Katastroko erreferentzia:

Poligonoa: 10.

Lurzati-zenbakia: 6:

Aldi baterako okupazioa: 634,80 m^2.

Zertarako: pinudia.

Finka-zenbakia: 2.

Jabea: Ignacio Ereño Zaldibar.

Katastroko erreferentzia:

Poligonoa: 10.

Lurzati-zenbakia: 8:

Behin betiko okupazioa: 2.160 m^2.

Aldi baterako okupazioa: 966,70 m^2.

Zertarako: larrea.